

# Miren Amuriza

---

**Miren Amuriza Plaza** (Berriz, Bizkaia, 1990eko martxoaren 1a) bertsolaria eta idazlea da. Xabier Amuriza bertsolariaren eta Arantza Plaza bertsolaritza irakaslearen alaba da. Hainbat euskal hedabidetan idazten du.

## Biografia

---

Miren Amuriza txikitatik bizi izan da bertso eremu batean, bere aita leku batetik bestera joaten ikusiz eta bertsolariak gertutik ezagutzen. Hala ere, bere gurasoek ez dute inoiz bertsolari izatera bultzatu, asko animatu dute baina bere kabuz hasi zen, hamabi urterekin. Bere gurasoak bertsolariak dira biak, bere aita izan da beti bere erreferente nagusia eta bere amari, Maddalen Arzallusekin batera, omenaldi bat egin zion. Amurizak, Euskal Filologia ikasi du Gasteizen eta bertsolaria izatez gainera, idaztea asko gustatzen zaio. Bertso eskolen bultzatzailea da eta, ostiraletan, Berrizko bertso eskolan klaseak ematen zien zortzi – hamahiru urte bitarteko 14 umeei.<sup>[3]</sup> Gainera, musika talde batzuekin kolaboratu egin du ere, abesten eta letrak idatziz.



2009an Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalaurrekotan bigarren txandara iritsi zen. Bizkaiko Bertsolari Txapelketan hiru aldiz izan da finalista, emaitzarik onena 2010eko hirugarrena izan zuen.

Gaur egun, Berria egunkarian eta Anboto aldizkarian kolaboratzen du, iritzi artikulua idatziz. Literaturari dagokionez 2017an Igartza Saria irabazi du *Paperezko txoriak* proiektuarengatik. Sari horren bekaren laguntzarekin argitaratu du *Basa* (Elkar, 2019) bere lehen eleberria, Sabina izeneko emakume menderakaitza protagonista gisa duena.

## Idazlanak

- Paperezko txoriak.
- Pupu eta Lore ikusi-makusi (Nor gara ?) (2016, Elkarlanean).
- Bainera bete itsaso (Album ilustratuak) (2016, Elkarlanean .
- Badator korrika ! (Plaza ipuinak) (2016, Elkarlanean).
- Pirritx hizkuntza zer ote ? (Nor gara ?) (2016, Elkarlanean).
- Porrotx hizkuntzaren arnasa (Nor gara ?) (2016, Elkarlanean).
- Marimotots euskara ikasten (Nor gara ?) (2016, Elkarlanean).
- Patata, patata ! (Plaza ipuinak) (2016, Elkarlanean).
- Amalur (PIRRITX, PORROTX ETA MARIMOTOTS) (2016, Elkarlanean).
- Mattin eta Kattin (Familia mila kolore) (2018, Elkarlanean).
- Hodei (Familia mila kolore) (2018, Elkarlanean).
- Kakuenea (Familia mila kolore) (2018, Elkarlanean).
- Larunbata (FAMILIA MILA KOLORE) (2018, Elkarlanean).
- Basa (2019, Elkar)

**Basa** / **Miren Amuriza** / Elkar, 2019

Basa Karmele Beobide Urigoitia / *Begitu*, 2019-12-01

Miren Amuriza Plaza, nork ez dau ezetuten? Bertsolaria, galdetzea be! Baina oingo honetan helduentzat dan istorio bategaz jatorku. Igartza bekeari esker idatzi dauana eta guri guztiori leiduteko aukerea emon deuskuna.

Sabina Gogenola, urteetan aurrera joanda dagoan Altzerreka baserriko uzabandrea alarguna da; bere zaintzapean dagoz Henry (bertako semea, urte luzez Ameriketan artzain ibilia, baina aspalditik oheratuta bizi dana hankea anputau eta gero) eta etxaldea. Urteak gogortu dabe Sabina, bere baserria da bere mundua, behiakaz, ardiakaz, etxeko txakurragaz edo katuakaz ederto baten konponduten da uzabandrea, eurakaz daukaz berba gozoak, maitasunezko keinuak... Etxekoakaz dana da errezeloa, ika-mika eta tensinoa; auzokoakaz, dana erretolikea eta norgehiagokea.

Dana aldrebestuko da Sabinari egingo deutsien ebakuntza txiki bategaz, zaintzailea izatetik zaindua izatera pasetan danean biztuko da gatazkea.

Zaintza gatazka modura erakutsiko deusku, Sabinak beretzat daukan egitea, poderea, seme-alabengandik datorrenean kontroltzat biziko dauana. Seme-alabak egunerokoa erraztu gura deutsien arren, berak ez dau ezer jakin gura modernidadeagaz, erosotasunagaz, inork ez deutso esango zelan bizi behar dan... Gatazka honek aurreikusi ezin dan ondorio larria izango dau.

Amurizak bere eleberri honetan biziteko era bat akabetan dabilen mundu ikuskera bat erakusten dau, erretratu gordin eta fidel bategaz. Arin baten leiduten dan eleberria da, era zehatzean eta indartsuan idatzita dagoanez gure inguruan bizi edota bizi izan diran andrak etorriko jakuz burura, personen arteko harremantzeak daukien zailtasunen aurrean ipiniko gaitu. Leiduten segiduteko gogoagaz itxiko gaitu, hurrengo eleberriaren zain.

Baserria, basa-andrea, biziteko era basa... Paperezko txoriak izan behar eban istorioa gure gozamenerako *Basa* bihurtu zan.

